

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

2119

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 24koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoria integralak egiteko laguntzen programaren oinarri arautzaileak onartzen, deialdia egiten eta argitaratzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoak eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak, jasangarritasun energetikoaren oinarri arautzaileak ezarri ditu, energia-efizientziako neurriak bultzatzea, energia aurrezte eta energia berriztagarriak sustatzea eta inplementatzea ardatz hartuta.

Otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duenak, auditoretza energetikoei, zerbitzu-hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta hornikuntzaren efizientziaren sustapenari dagokienez («56/2016 ED»), enpresa handitzat jotzen diren enpresei auditoretza energetikoak egiteko beharra ezartzen du, halakotzat hartuz gutxienez 250 pertsonari lan ematen dietenak, bai betekizun hori bete ez arren, 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena eta aldi berean 43 milioi euro baino gehiagoko balantze orokorra dutenak. Era berean, sozietate-taldeei ere aplikagarria zaie, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko definizioaren arabera, baldin eta, talde finkatua osatzen duten sozietate guztien neurri agregatuak kontuan hartuta, enpresa handitzat jotzeko betekizunak betetzen badituzte.

Horrela, 56/2016 Errege Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioaren eranskineko I. tituluaren arabera mikroenpresa, enpresa txiki eta ertain (ETE) gisa hartzen direnak.

Ildo horretan, 2030erako (3E2030) Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan gauzatutako Eusko Jaurilaritzaren energia-politikaren helburuei jarraikiz, Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Sailaren misioa energia-kontsumoan efizientzia areagotzen laguntzea da, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produkziarako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.

Horren harira, 2021ean, Euskadiko tokiko administrazio publikoaren alorrean jasangarritasun energetikoa hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntzen programa jarri zen abian, Euskal Autonomia Erkidegoko instalazio eta eraikin publikoetan energiaren aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko ekintzak identifikatu eta sustatzeko; 2022an, energia-efizientzian, energia berriztagarrietan, garraioan eta mugikortasun efizientean inbertsioak egiteko laguntzen programa, energiaren aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko ekintzak sustatzeko; eta 2023an, industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoria integralak egiteko laguntzen programa.

Ekintza-lerro berean, euskal industria-sektorearen eta hirugarren sektorearen barruan arretaguneak atzematen dira oraindik ere.

Ondorioz, laguntzen programa hau energia berriztagarrien erabilera potentziala, bai eta industria-sektorean eta hirugarren sektorean aurrezpena eta efizientzia energetikoa lortu nahi duten ekintzak sustatzeko lehentasunezko helburuarekin diseinatu da, hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean.

Azaldutako guztia dela-eta, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Energiaren Euskal Erakundearen zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretua bigarren ez aldatzen duen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoria integralak egiteko laguntzen programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Programaren edukia ebazpen honi eranskin gisa eranstean zaio.

Bigarrena.— Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 8.3 artikuluari jarraikiz, industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoria integralak egiteko laguntzen programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau, oso-osorik, Euskal Herrado Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, ebazpena EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2025eko apirilaren 24a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR.



ERANSKINA

INDUSTRIA-SEKTOREKO ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ETE-ETAN ENERGIA- AUDITORIA INTEGRALAK EGITEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

OINARRIAK



Industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoria integralak egiteko Laguntza-programa

1. Programaren xedea, laguntzen deskribapena eta izaera.

- 1.1 Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia-efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauak, 2009/125/EE eta 2010/30/EB Zuzentarauak aldatzen dituenak, eta 2004/8/EE eta 2006/32/EE Zuzentarauak indargabetzen dituenak (aurrerantzean, **2012/27/EB Zuzentaraua**), Europar Batasunaren barruan energia-efizientzia sustatzeko esparru komuna sortu zuen.

Ondoren, otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuak (aurrerantzean, «**56/2016 ED**»), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia-efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duenak, energia-auditoriei, energia-zerbitzuen hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia-horniduraren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez, arau-esparru bat ezarri zuen, erakunde baten energia-efizientzia hobetzeko, energia-aurrezpena sustatzeko eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko jarduketak garatu eta bultzatzeko, Europar Batasunak energia-efizientziaren arloan dituen helburuak lortzen laguntzeko.

Azkenik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia-efizientziari buruzko 2023ko irailaren 13ko 2023/1791/EB Zuzentarauak, 2023/955/EB Erregelamendua (bertsio bategina) aldatzen duenak, aldaketak ezarri eta 2012/27/EB Zuzentaria bategin zuen.

- 1.2 Euskal Autonomia Erkidegoak (aurrerantzean, «**EAE**») eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak (aurrerantzean, «**4/2019 Legea**») jasangarritasun energetikoaren oinarri arautzaileak ezarri ditu, energia-efizientziako neurriak bultzatzea, energia aurrezte eta energia berriztagarriak sustatzea eta inplementatzea ardatz hartuta.

- 1.3 56/2016 Errege Dekretuak ezartzen du energia-auditoriak nahitaez egin behar zaizkiela enpresa handitzat jotzen diren enpresei. Halakotzat jotzen dira, hain zuzen ere, bai gutxienez 250 pertsonari lan ematen dietenak, bai betekizun hori bete ez arren 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena, eta, aldi berean, 43 milioi euro baino gehiagoko balantze orokorra dutenak. Era berean, sozietate-taldeei ere aplikatuko zaie, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko definizioaren arabera, baldin eta, talde finkatua osatzen duten sozietate guztien neurri agregatuak kontuan hartuta, enpresa handitzat jotzeko betekizunak betetzen badituzte.

Horrela, 56/2016 Errege Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioaren eranskineko I. tituluaren arabera mikroenpresa, enpresa txiki eta ertain (ETE) gisa hartzen direnak.

- 1.4 Ildo horretan, 2030erako 3E2030 Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan gauzatutako Eusko Jaurlaritzaren energia-politikaren helburuei jarraikiz, Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Sailaren misioa energia-kontsumoan efizientzia areagotzen laguntzea da, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produktiorako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.

- 1.5 Horren harira, 2021ean, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko administrazio publikoaren alorrean jasangarritasun energetikoa hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntza-programa jarri zen abian, Euskal Autonomia Erkidegoko instalazio eta eraikin publikoetan energiaren aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko ekintzak identifikatu eta sustatzeko; 2022an, energia-efizientzia, energia berriztagarrietan, garraioan eta mugikortasun efizientean inbertsioak egiteko laguntza-programa, energiaren aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko ekintzak



sustatzeko; eta 2023an, industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoria integralak egiteko laguntza-programa.

Ekintza-lerro berean, euskal sektore industrial eta tertziarioen barruan arretaguneak atzematen dira oraindik ere.

- 1.6 Horregatik, EAEko lurraldean energia berriztagarrien erabilera potentziala eta industria-sektorean eta hirugarren sektorean energiaren aurrezpena eta efizientzia helburu duten ekintzak sustatzeko, industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoria integraletan inbertsioak egiteko laguntza-programa hau argitaratu da (aurrerantzean, «**Programa**» edo «**Laguntza-programa**»).
- 1.7 Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurreratzean, «**DLO**») 8.1 artikuluan xedatutakoaren eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen (aurrerantzean, «**20/2023 Legea**») 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EEEren Zuzendaritza Kontseiluak 2025eko otsailaren 5ean egindako bileran EEEren 2025-2028 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen.

Zentzu honetan, diruz lagundutako 320 proiektu ingurura iritsi nahi da, eta 14.000 ptb-ko auditatutako kontsumo energetikora.

EEEren 2025erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa honako helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE.aspx>

- 1.8 Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.
- 1.9 Laguntza-programa hau zein programa aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera, eta salbutsirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharretik.

Programa honetarako, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako betekizunak eta mugak aplikatuko dira. Erregelamendu horren bidez, adierazten da laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (aurrerantzean, **651/2014 Erregelamendua**), 2023ko ekainaren 23ko 2023/1315 Erregelamenduan (651/2014 Erregelamendua eta 2022/2473 Erregelamendua (EBEO L 167/1) aldatzen dituen) egindako aldaketetatik etorritako azken idazketaren arabera, eta ingurumena babesteko laguntzen kategoriaren arabera salbuespena aplikatuko da (7. atala).

Zehazki, 49. artikulua aplikatuko da: Ingurumena babesteko eta energiaren arloko azterlanak eta aholkularitza-zerbitzuak egiteko laguntzak.

- 1.10 Laguntza-programa honen ondorioetarako, eta 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskineko 1. eta 2. artikuluetan araututakoaren arabera, honako hau da enpresa: «*jarduera ekonomiko bat egiten duen erakunde oro, edozein dela ere haren forma juridikoa*» (hau da, merkatu jakin batean ondasunak eta zerbitzuak eskaintzean dituen edozein jarduera). «*Bereziki, enpresatzat hartuko dira artisau-jarduera bat edo beste jarduera batzuk egiten dituzten erakundeak, banaka edo familian, bai eta erregulartasunez jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsonen sozietateak eta elkarteak ere*».

651/2014 Erregelamenduaren barnean hartuta dauden laguntzaren xede diren proiektuek frogatu beharko dute Laguntza-programa honen babesak eragin sustagarria duela (651/2014 Erregelamenduaren 6. artikulua). Xede horietarako, laguntzek eragin sustagarria dutela ulertuko da baldin eta onuradunak, dirulaguntzaren xede den proiektuan edo jardueran lanean hasi baino lehen, laguntza-eskaera bat aurkeztu badu, eta laguntza-eskaera horrek, gutxienez, 651/2014 Erregelamenduaren 6.2 artikuluan adierazitako informazioa jasotzen badu. Horrenbestez, ez dira onartuko 651/2014 Erregelamenduaren esparruan dauden proiektu eta lanetarako eskaerak baldin eta laguntza eskatu aurretik gauzatzen hasiak baldin badira, 651/2014 Erregelamenduaren 2. (23) artikulua definizioa ulertuta proiektuaren edo



lanen hasieratzat. Horregatik eskatuko da jarduketa diruz lagungarria egikaritzeari dagozkion egikaritzeko edozein konpromiso irmo, onartutako aurrekontu, eskari, kontratu, faktura eta ordainagiriak laguntza-eskaeraren ondorengoak izatea.

2. Pertsona onuradunak.

2.1. Deialdi honen xede diren dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta dokumentu honetan adierazitako baldintzak betetzen badituzte eta EAEko lurraldean energia berriztagarrien erabilera potentzialean, energiaren aurrezpenean eta energia-efizientzian eragina duten jarduketak dakartzaten energia-auditoria integralak egiten badituzte, 56/2016 Errege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera **industria-sektorearen eta hirugarren sektorearen barruan ETE** gisa hartzen diren izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek, eta Ekonomia Jardueren 2025eko Sailkapen Nazionalaren arabera (aurrerantzean, «**2025 EJSN**»), edo, bestela, Ekonomia Jardueren 2009ko Sailkapen Nazionalaren arabera (aurrerantzean, «**2009 EJSN**»), 07tik 39ra bitarteko taldeen barruan badaude, biak barne, industria-sektorerako, eta 41etik 99ra bitarteko taldeen barruan badaude, biak barne, hirugarren sektorerako, eta, betiere, bi sektore horietan energia-kontsumitzaile handitzat hartutako enpresak ez badira.

Energia-kontsumitzaile handitzat hartzen dira industria-sektorearen barruan urtean 500 petrolio-tona baliokide (ptb) baino gehiagoko azken energia-kontsumoa duten enpresak eta hirugarren sektorearen barruan urtean 40 ptb baino gehiagoko azken energia-kontsumoa duten enpresak.

Adierazitakoari dagokionez:

- ETetzat hartzeko, 56/2016 Errege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitakoa hartuko da kontuan.
- Industria-sektorean edo hirugarren sektorean ETetzat hartzeko, 2009ko EJSN hartuko da kontuan.
- Enpresa energia-kontsumitzaile handitzat hartzeko, 4/2019 Legean aurreikusitakoa hartuko da kontuan.

2.2. Honako hauek ez dute deialdi honetako dirulaguntzak eskuratzeko aukerarik izango:

- (i) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduaren (aurrerantzean, «**DAO**») 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako bat betetzen ez dutenak.

Testuinguru horretan, laguntzaren eskatzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez daukala, edo, bidezko bada, betebeharrak bete izana egiaztatzen duena, 21. artikuluan horretan ezarritakoari jarraikiz.

- (ii) DLOaren 13.2 eta 13.3 eta 13.3 bis artikuluetan eta 20/2023 Legearen 13.1, 13.2, 13.3, 13.4 eta 13.5 artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzietako batean daudenak.

Zirkunstantzia hauek betetzen direla kreditatzeko eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzei buruzko Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzei buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, 20/2023 Legearen 13.6, 13.7, 13.8 eta 13.9 artikuluetan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduaren (aurrerantzean, «**DLO**») 22 bis eta 23. artikuluetan. Testuinguru horretan, aurrez aipatutako bi arauak halakorik ahalbidetzen dutenean, aurreko paragrafoan adierazitako artikuluetan deskribatutako zirkunstantzietan ez daudela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahalko dute pertsona eskatzaileak.



Horri dagokionez, zerga-arloko Administrazioan, Gizarte Segurantzaren Administrazioan edota gaituta dagoen eta zirkunstantzia horiek betetzen direla egiaztatzeko prozedura izapidetzen den bitartean beharrezkoa den Administrazioen arteko beste edozein elkarerragingarritasun-zerbitzutan kontsultatuko du zuzenean informazioa EEEK. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du pertsona eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- (iii) EBk ezarritako zigorren eraginpean dauden enpresak, besteak beste, honako hauek:
 - ☐ Zigor horiek agintzen dituzten egintza juridikoetan espezifikoki izendatutako pertsona, entitate edo erakundeei dagozkien zigorrak;
 - ☐ EBk hartutako zigorren xede diren pertsona, entitate edo erakundeen kontrolpean dauden edo horien jabetzakoak diren enpresei dagozkien zigorrak; edo,
 - ☐ EBk hartutako zigorren eraginpeko industrietako enpresa aktiboei dagozkien zigorrak, laguntzak dagozkien zigorren helburuen kalterako diren neurrian.
- (iv) 651/2014 Erregelamenduaren 1. artikuluko 2. apartatutik 5. apartaturaino identifikatutako sektoreetako enpresak edo jarduerak.
- (v) Krisi-egoeran dauden enpresak, horretarako 651/2014 Erregelamenduan eta krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendurako eta berregituraketarako laguntzei buruzko Erkidegoko zuzentzariaren (Batzordearen 2014/C 249/1 Jakinarazpena, 2014ko uztailaren 31koa) egiten den definizioaren arabera.
- (vi) Aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende dauden enpresak, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleituta dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituztelako.
- (vii) Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea sozietatearen helburu edo jarduera guztia edo zati bat den enpresak.
- (viii) Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta Transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean erori direnak.
- (ix) 4/2019 Legearen arabera kontsumitzaile handitzat hartzen diren enpresak. Enpresa energia-kontsumitzaile handiak honako hauek dira: sektore industrialerako 500 ptb-tik gorako urteko azken kontsumoa dutenak eta 40 ptb-tik gorakoa dutenak hirugarren sektorean.

2.3. Laguntzen onuradunek jasotzen duten laguntzaren zenbateko osoa dagozkion diruz lagundu daitezkeen jarduketak ordaintzera bideratuko dute.

3. Aurrekontu-zuzkidura eta eskaerak aurkezteko epea.

3.1 EEEren aurrekontuan horretarako ezarritako dagokion kredituaren arabera, bost (5.000.000) milioi euro da programa honetarako bideratutako diru-zuzkidura totala; aurrekontu hori Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025erako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024ko Legearen bidez onartu zen (2024ko abenduaren 30eko EHAA, 252. zenbakia).

Programaren aurrekontua % 20 handitu ahal izango da, salbuespen gisa, eskariaren eta dirulaguntzako jarduketaren garapenaren arabera, baldin eta helburu horretarako aurrekontu-eskuragarritasunik baldin badago, eta baldin eta haren indarraldi-epea ez bada iraungi.



3.2 Laguntza-programa honetarako **laguntza-eskaerak aurkezteko epea** oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean, «**EHA**») argitaratu eta hurrengo laneguneko 08:00etan hasiko da, eta laguntza-programan horretarako bideratutako aurrekontua agortzen denean amaituko da.

Nolanahi ere, aurrekontu eskuragarriarik egon zein ez, laguntza-eskaerak aurkezteko epea **2028ko urriaren 12an** (osteguna) amaituko da, deialdian aurrekontu eskuragarriarik balego ere. Adierazitako indarraldi hori amaitzean, ez dira eskaera gehiago onartuko.

Aurrekontu erabilgarria agortu dela iragarriko da EEEn zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, EHAAn zein EEEn Interneteko helbidean: www.eve.eus.

3.3. Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, «**39/2015 Legea**») 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

3.4 Jada aurkeztuta dauden eskaerak –ongi egindakoak eta osoak izanik eta izapidetze-fasean egonik– esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortu delako ezin badira erantzun, ezetsi egingo dira arrazoi hori dela-eta, EEEn zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez.

4. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

4.1 Diruz lagundu daitezkeen jarduketak **I. eranskinean** adierazitakoak izango dira, eskatzaileek EAEko lurraldean egindakoak, baldin eta xede badute industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoria integralak egitea, eta betiere:

- a. Laguntza-eskaera aurkeztu ondoren hasi bada jarduketa. Instalazioen egikaritzeari dagozkion egikaritzeko edozein konpromiso irmo, onartutako aurrekontu, eskari, kontratu, faktura eta ordainagiriak eskaera eskatu ondorengoak izatea eskatuko da; eta
- b. Jarduketaren egikaritzapena, fakturazioa eta ordainketa sei (6) hilabeteko gehieneko epean egin eta justifikatu beharko da laguntza ematen dela ezartzen duen ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta, edozein kasutan ere, 2028ko abenduaren 31n, astelehena, beranduenez.

4.2 I. eranskinean barne hartuta daude diruz lagundu daitezkeen kostua eta pertsona onuradunek jaso beharreko laguntzen zenbatekoa zenbat izango den.

5. Dirulaguntzetarako muga orokorrak.

5.1 Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra onuraduneko.

4. oinarrian eta I. eranskinean aipatutakoa betez.

5.2 Bateragarritasun-erregimena beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko.

5.2.1. Pertsona onuradunek jaso beharreko laguntzak bateragarriak izango dira proiektu edo jarduketa bererako eman daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, baldin eta, laguntza-neurri horiek diruz lagundu daitezkeen kostu desberdinetarako badira, edo laguntza-neurriak osorik edo zati batean diruz lagundu daitezkeen kostu berdinekin bat datozenean eta haien metaketak Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera aplikagarriak diren laguntza-intentsitatea edo laguntza-zenbateko gorenekoa gainditzen ez badute.

5.2.2. Edonola ere, gainfinantzaketa saihestearren eta DLOaren 19. artikulua aplikatuz, bai eta 20/2023 Legearen 16. artikulua ere, emandako laguntzen kopuruak ezein kasutan ezin izango du, isolaturik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.



5.2.3. Beste erakunde batzuetatik datozen dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak EEEren aldetik dirulaguntza emateko ebazpenaren ondoren gauzatzen badira, pertsona onuradunak EEEri jakinarazi beharko dio, eta dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen multzoaren azterketatik ondorioztatzen bada aurrerakin itzulgarriaren zenbatekoa murriztu beharra, laguntza osorik edo partez errebokatze dagokion ebazpenaren bitartez jakinaraziko da, eta hura ordaindu aurretik.

5.3 Diruz lagundutako jarduerak hirugarrenekin azpikontratatzea edo kontratatzea.

- a) DLOaren 29. artikuluan, DEOaren 68. artikuluan eta 20/2023 Legearen 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, pertsona onuradun bat azpikontratatzeko ari dela esaten da hirugarrenekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo partez egikaritzen dela. Pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik at geratuko da.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratatzea diruz lagundutako jarduketaren zenbatekoaren % 100 ere izan daiteke, eta diruz lagundutako jarduketaren hirugarrenen azpikontratazio edo kontratazioarako, aipatutako DLOaren 29. artikulua, DEOaren 68. artikulua eta 20/2023 Legearen 31. artikulua horietan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatuko dira.

- b) Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan eta 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoak, kontratu txikiari dagokionez (15.000 euro, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 euro, BEZik gabe, obretarako), laguntzaren pertsona onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espresuki justifikatuta geratzea ere, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.

6. Izapidetzeko kudeaketa eta prozedura.

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren arabera (aurrerantzean, «91/2023 Dekretua»), laguntza-programa honi lotutako espedienteen izapidetze guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako kudeaketak) baliabide elektronikoak erabiliz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Elektronikoko egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bitartez (<https://www.euskadi.eus/micarpeta>) eta Eusko Jaurlaritzaren Tramitagune izapidetze elektronikoko aplikazioa erabiliz, [euskadi.eus](https://www.euskadi.eus) webgunean eta EEEren web-orrian (www.eve.eus) erabilgarri dagoena. Hori guztia, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa batean, izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak daude eskuragarri, eta horren bitartez, eskaera-formularioan sartzen da; hemen dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus> eta www.eve.eus

Dirulaguntzak eskatu eta izapidetzearekin zerikusia duen edozein tramite edo dokumentu elektronikoki aurkezten bada, sinadura elektronikoa aitortu bat eduki beharko du, 91/2023 Dekretuaren 71. artikuluan xedatutakoaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko onartutako identifikazioko eta sinadura elektronikoko bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos>



Kanal elektroniko bidez, eskaeraren ondorengo tramiteak, jakinarazpen eta justifikazioak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>

Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun baliouduneko epea emango zaio pertsona interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, 39/2015 Legearen 21. artikulua arabera.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, pertsona interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoan aurkezteko.

7. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia.

Laguntza eskatzeko inprimakia eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa 6. oinarrian adierazitako aplikazio informatikoaren bidez erantsi beharko dira, 3. oinarrian aurreikusitako laguntza eskatzeko epearen barruan, 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan pertsona fisikoen kasurako aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Eskaerak onartzeko hautagarritasuneko aldirako eta 4.1 oinarrian ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko, programan eskatuko da instalazioen egikaritzeari dagozkion egikaritzeko edozein konpromiso irmo, onartutako aurrekontuak, eskariak, kontratuak, fakturak eta ordainagiriak laguntza-eskaeraren ondorengoak izatea.

Eskaeraren aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie eskaerei, laguntza-eskaerak ebazteko ordenari dagokionez 9.1 oinarriaren lehenen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe, funtsak agortzen diren arte.

Laguntza-eskaerak oinarri hauetako II. eranskinean adierazitako dokumentazio guztiarekin batera joango dira. Nolanahi ere, EEEk pertsona eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

8. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea.

8.1. Laguntza-eskaeren ebazpenak ondoz ondoko lehiako prozedura baten bidez emango dira, egoera edo diruz lagundu daitekeen jarduketa badela eta eskatutako beste betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Horrenbestez, aurkeztu diren hurrenkera zehatzaren arabera aztertuko eta izapidetuko dira eskaerak.

8.2. Laguntzen Arloa izango da, EEEko Berrikuntza eta Garapen Zuzendaritzaren barruan kokatua, espedienteen antolamendu eta kudeaketarako organo eskuduna.

Bere aldetik, EEEko Zuzendaritza Nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkeztzen den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igarotakoan ez bada esanbidezko ebazpenik eman, pertsona eskatzaileek ezetsizat hartu ahal izango dute beren eskaera, 20/2023 Legearen 22. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, 39/2015 Legearen 25. artikuluan jasotakoaren ondorioetako, baina, hala eta guztiz ere, EEEk egindako eskaeraren esanbidezko ebazpena eman behar du. Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>



Ebazpenean honako hauek adieraziko dira esanbidez, 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan adierazitako edukiaz gain: (i) laguntzaren xede den jarduketa, (ii) laguntzaren zenbatekoa (kopuru gordin gisa, laguntzaren pertsona onuradunaren izaeragatik egokiak diren zerga-betebeharrak alde batera utzi gabe), (iii) interesgarritzat jotzen diren bestelako alderdiak eta (iv), hala badagokio, ukatzeko arrazoiak.

- 8.3** Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, pertsona eskatzaileak hautazko berraztertze-errekurtsoa jarri dakioke EEE Energiaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza Nagusiari hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikularekin (aurrerantz, «**29/1998 Legea**»).
- 8.4.** Azkenik, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (aurrerantz, «**19/2013 Legea**»), DEOaren 30. artikulua eta 20/2023 Legearen 15. artikulua diotenarekin bat etorritik, laguntza-programa hau amaitu eta gero, EEEK bere Gardentasun Atarian eta Euskadiko Dirulaguntzen Erregistro Orokorrean (KKB Kontrol Ekonomikoko Bulegoari helaraztearen bidez) argitaratuko ditu programa honen emango diren dirulaguntzak, eta legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.
- 8.5** 20/2023 Legearen 34. artikulua aplikatuz, EEEK deialdi honetan aurreikusitako laguntzak pertsona onuradunei ordaintzea bertan behera uztea erabaki ahal izango du, edozein itzulketa-prozeduraren amaiera baldintzapean geratuko delarik, zeina, EAEko Administrazio Orokorrean, bere Erakunde Autonomoek eta sektore publikoko entitateek emandako izaera bereko laguntze edo dirulaguntzen esparruan hasita egonik, oraindik ere izapidetze-aldian dagoen, etendura horrek ezein kasutan ez duelarik gaindituko diru-itzulketa espedientearen hasierarako proposamenak edo ebazpenak finkatzen duten diru kopurua, berandutze-interesekin.

9. Jarduketa egin izana eta laguntza ordaindu izana justifikatzea.

- 9.1** Laguntzaren onuradunek gehienez ere sei (6) hilabeteko epean justifikatu beharko dute EEEren aurrean laguntzaren xede den jarduera egin izana, laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta, betiere, ez 2029ko urtarrilaren 15a (astelehena) baino geroago, elektronikoki, 6. oinarrian adierazitako aplikazio informatikoaren bidez.
- 9.2** Oinarri hauen II. **eranskinean** adierazitako dokumentu guztien artetik aplikagarriak direnak aurkeztu beharko ditu laguntzaren onuradunak.
- 9.3** Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak bete direla jasotzen duten ziurtagiriak egiaztatuta daudela automatikoki eta ofizioz egiaztatuko du EEEK.

Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du pertsona eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.



Kasu horretan ez da inolako ordainketarik egingo pertsona onuraduna ez badago egunean zerga-alorrean edo Gizarte Segurantzaren aurrean dauzkan betebeharrei dagokienez, edota zorduna bada, itzulketa-betebeharra dakarren ebazpen baten ondorioz.

- 9.4** Laguntzaren pertsona onuradunak aurkeztu beharko du dokumentazioa, edo haren legezko ordezkariak, behin jarduketa erabat bukatutakoan, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, justifikatzeko aurkeztu den dokumentazioa osatugabe badago, akatsak baditu edo postaz nahiz aurrez aurre aurkeztu bada, laguntzaren pertsona onuradunari, zuzenketa-eskaerako dagokion idazkiaren bidez, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko, laguntzaren pertsona onuradunak zuzenketa-jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera zenbatuta (39/2015 Legearen 68. artikulua).

- 9.5** EEEk ez du zabalduko edo luzatuko eskatutako dokumentazioa osorik entregatzeko eta diruz lagundu daitekeen jarduketa egikaritzeko epea, eta justifikazioa ezarritako epean ez aurkezteak, laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, emandako laguntza errebokatzea eta DLOan ezarritako gainerako erantzukizunak ekarriko ditu berekin.

- 9.6** Eskatutako dokumentazioa jasotakoan aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioari balorazio positiboa ematen bazaio, EEEk laguntza ordainduko du.

Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontrastatutakoan, ikusten bada, inbertsioa gauzatu eta Programa honen helburua bete arren, dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren partez errebokatze espediente bati emango zaio hasiera.

Aitzitik, pertsona onuradunak 9. oinarri honetan edo oinarri hauetan edo/eta dirulaguntzaren arloan ezarritako araudian aurreikusitako terminoetan adierazitako justifikazio-betebeharra beteko ez balu, EEEk laguntza guztiz edo zatiz errebokatze espediente bat hasiko du, 12. oinarrian azaldutako mailakatze-irizpideei jarraituz eta, betiere, proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorritik.

Laguntzaren bi errebokatze-kasuan, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da.

- 9.7** Dirulaguntzaren ordainketa, EEEk egindakoa, laguntzaren onuradunak adierazitako banku-kontuan egingo da, bere laguntza-eskaeran identifikatutako proiektua amaitu ondoren, eta EEERI justifikazio-dokumentazioa aurkeztu ondoren. Dokumentazio horrek honako hauek egiaztatzea ahalbidetuko du: diruz lagundutako jarduerak eta egindako gastuak egin izana, edozein itzulketa-prozeduraren amaiera eta laguntzaren ordainketa jaso ahal izateko dirulaguntza-araudian ezarritako gainerako baldintza eta obligazioak betetzea.

- 9.8** Ezin izango dute laguntzaren ordainketa jaso EAEko Administrazioako eta haren sektore publikoko edozein entitatek eta/edo EEEk emandako izaera bereko laguntzei edo dirulaguntzei dagozkien kopuruak itzultzeko betebeharrak betetzeke dauzkaten pertsona onuradunek. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

Pertsona onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela onartzeko, haxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako EAEko sektore publikoari dagokion edozein entitatekin edo EEERekin zorrik ez izatea, epealdi betearazlean, dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo onuradunei zein erakunde laguntzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrik ez izatea.

Era berean, pertsona onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (DEOaren 21. artikulua).

- 9.9** EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala justifikatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria).



10. Laguntzaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea.

Dirulaguntzaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEEK beharrezkotzat jotzen duen eta espedientearen ez dagoen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du, dirulaguntzen erabileraren fiskalizazio-funtzioak baliatuz.

Informazioa kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEEK dirulaguntza osorik edo partez errebokatzeko espediente egingo du, eta, hala badagokio, zati bat edo kopuru osoa itzultzeko galdatuko du, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

11. Laguntzen onuradunen betebeharrak.

Deialdi honen xede den laguntzen azken pertsona onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte betiere:

- a. DLOaren 14. eta 46. artikuluetan eta 20/2023 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoak.
- b. Dirulaguntza eman zaion helburu jakinerako erabiltzea.
- c. Kontrol Ekonomikoko Bulegoari (KEB), Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari (HKEE), EEEri eta baita tokiko, estatuko edo Europar Batasuneko beste edozein kontrol-erakunderi (adierazgarri gisa, eta ez modu mugatzailean, Europar Batasuna, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoa, OLAF, Europako Kontu Epaitegia eta Europako Fiskaltza) eta gai honetan eskumena duten erakundeei ematea beren funtzioak gauzatzean laguntza-deialdi honen kontura jasotako laguntzei buruz eskatzen dioten informazio guztia.
- d. EEEri, xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.
- e. Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Modu horretan, onuradunak onartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua guztiz bat datorrela indarreko araudi aplikagarriarekin, bai teknikoarekin, bai hirigintzakoarekin, bai beste edozein izaerarekin.
- f. Egindako jarduketa eta jasotako laguntzaren aplikazioa egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak gordetzea, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dagozkien jarduketaren xede izan daitezkeela kontuan hartuta, eta gutxienez hamar (10) urtean zehar laguntzaren emakidaren datatik aurrera, 651/2014 Erregelamenduak xedatzen duenaren arabera.
- g. Kontabilitate banandu edo bereizi bat izan beharko dute pertsona onuradunek laguntzako jarduketarekin zerikusia duten transakzio guztietarako.
- h. Dirulaguntzaren onuraduna enpresa bat denean, bere merkataritza-eragiketetan egin dituen diruz lagundu daitezkeen jarduketak aplikagarria zaion sektore-araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute edo, bestela, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.
- i. 20/2023 Legearen V. titulua aplikatuz eta betiere diruz lagundu daitezkeen jarduketa edo pertsona onuradunaren izaera dela-eta enpresa-deslokalizazio baten kasuan bagaude, pertsona onuradunak nahitaez bete beharko ditu adierazitako 20/2023 Lege horren 48., 49., 50. eta 51. artikuluetan deskribatutako betebeharrak eta ondorioak.



- j. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEERI, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betez EEEK eskatzen dion edozein informazioaren berri ere.
- k. Informatzeko eta komunikatzeko egiten diren neurri eta ekintza guztietan, pertsona onuradunak EEERen laguntzaren onuraduna dela aitortu behar du. Horretarako:
- ☐ Paperean, webgunean, aplikazioan edo ikus-entzunezkoan egiten den ekintza orok berariaz adierazi beharko du jarduera horrek dirulaguntza jaso duela industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoria integralak egiteko laguntza-programaren barruan. EEERen logotipoa txertatu beharko da, EEERen webgunean egongo dena eskuragarri, formatu bektorialean eta bere azken bertsio eguneratuenean.
 - ☐ Dirulaguntzaren xede den jarduketa komunikabideetan sustatzeko komunikazio-ekintza orok berariaz adierazi beharko du jarduera horrek EEERen laguntza izan duela, eta EEERI jakinaraziko zaio komunikazio-ekintza hori gauzatu dela.
- l. Diruz lagundutako jarduketaren ondoriozko informazioa EEERen eskura jartzea, haren emaitzak zabaltzeko xedez, alde biek elkar hartuta.

12. Ez-betetzeak eta itzulketak.

Deialdi honetan ezarritako eskakizunak eta gainerako arau aplikagarriak edo, kasuan-kasuan, dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedienteak ireki ondoren, dirulaguntza osorik edo partez errebotatzea eragingo du horrek, eta dirua itzuli egin beharko zaio EEERI, berandutze-interesekin batera, eta hori guztia 20/2023 Legearen III. tituluarekiko xedatutakoari jarraikiz, dagozkion lege-egintza eta zigorrak alde batera utzi gabe.

Pertsona onuradunak jasotako kopuru guztiak edo batzuk itzuli beharko ditu oinarri hauetan hori ezartzen den kasuetan, eta 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritakoetan, eta, dirulaguntzen alorrari dagokionez, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte dagokion berandutze-interesa eskatuko zaio. Eta helburua erabat betetzera modu esanguratsuan hurbildu delako dirulaguntza partez itzuli behar denean, eta pertsona onuradunak oinarri hauei jarraikiz bere konpromisoak eta betebeharrak betetzeko jarduketa nabaria egiaztatzen badu, programa honetan aurreikusitako xede eta helburuen betetze-maila hartuko da kontuan, betiere proportzionaltasun-irizpideen pean.

EEEko Zuzendaritza Nagusiak du errebotatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza osorik edo partez itzularaztekoa.

13. Eskatzaileei informazioa emateko klausula.

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA (Datuak babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
Tratamenduaren arduraduna	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea 36, 1. solairua, 48011 Bilbo (Bizkaia) Telefonoa: 944 035 600 Harremana DPO: dpd@eve.eus
Helburua	- Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den harremanaren egikaritzapena eta kontrola. - Estatistika-xedeekin tratatu ahal izango dira datuak.



DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA (Datuak babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
Tratamenduaren eta kontserbazioaren legitimazioa	- Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. - Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeko epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.
Lagapenen hartzaileak	Kontrol-arloko eta 20/2023 Legearen 15.9 artikuluan aurreikusitako alorrean eta kasuetan eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatalak, edo Europar Batasunekoak.
Pertsona interesdunen eskubideak	Pertsona interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatze, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEEri idazki bat bidaliz, «datuak babesteko eskubideak egikaritzea» adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikaritu daitezkeen neurrian. Pertsona interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari erreklamatzeko eskubidea dute www.avpd.eus
Pertsona onuradun orok konpromisoa hartzen du, bere laguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEEri eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridiko, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEEri datu pertsonak behar bezala lagatzeko. Ordezkapena gauzatzeko, ordezkaria bere ordezkatuaren datu pertsonaletan sartuko da, eta haren datu pertsonalak tratatuko ditu erabateko konfidentzialtasunez eta bidezkoak diren segurtasun-neurriak aplikatuz, prozedura kudeatzeko soil-soilik eta beste edozertarako erabiltzeko aukera debekatuta. Era berean, ezin izango dizkio hirugarrenei jakinarazi. Konpromiso hauek modu mugagabea hartzen dira, baita ordezkariak amaitu ondoren ere. Ordezkariak segurtasun-arrakalen bat detektatzen badu EEErentzako datuen komunikazio-kanaletan, EEEri jakinarazi beharko dio berehala.	

14. Azken xedapenak.

1. EEEren erabakiak izaera administratiboa du, eta EEEk kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
2. Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren pertsona onuradunaren aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEEk eman beharreko laguntza onartzeko edo ukatzeko garaian, laguntzaren onuradunaren erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.
3. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:
 - ☐ 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
 - ☐ 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
 - ☐ Abenduaren 21eko 20/2023 Legea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.



- ☐ 4/2019 Legea, otsailaren 21koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren jasangarritasun energetikoari buruzkoa.
- ☐ UNE-EN 16247 Araua, edo haren ondorengo aldaketak edo hobekuntzak.
- ☐ Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez laguntza kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten den, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.
- ☐ 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- ☐ 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
- ☐ 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.
- ☐ Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Agindua, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.
- ☐ Aplikagarri izan litezkeen tokiko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta/edo Europako gainerako araudi guztiak.



I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUKETAK, DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

A) Diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

Programa honen esparruan laguntza jasoko duten industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetako energia-auditoria integralak UNE-EN 16247 arauaren edo haren ondorengo aldaketen edo hobekuntzen arabera garatu direnak izango dira.

Energia-auditoria integralek honako informazio- eta analisi-baldintza hauek bete behar dituzte gutxienez:

- ☐ Energia instalazioen deskribapen orokorra (produkzio-ekipoak, konpresoreak, klimatizazioa, beroa eta hotza sortzeko gelak, argiztapen-sistemak, aireztapen-sistemak...), haien kokapena eta asetzen dituzten energia-zerbitzu motak nabarmenduz.
- ☐ Produkzio-ekipoen eta ekipo osagarrien inbentarioak (konpresoreak, klimatizazioa, beroa eta/edo hotza sortzea, argiztapena, aireztapen-sistemak, etab.), bakoitzaren ezaugarri teknikoak barne.
- ☐ Urteko energia-kontsumoen inbentarioa, energia-motaren arabera.
- ☐ Energia-balantzea, bete beharreko energia-zerbitzuen arabera.
- ☐ Energia berriztagarriak erabiltzen dituzten teknologiak ezartzeko proposamenak; eta energia-efizientzia handiko teknologiak ezarrita energia aurrezteko proposamenak. Proposamen teknikoek irekiak izan behar dute, planteatutako berritze-proposamenerako tipologia onuragarria izan behar baitute. Hau da, energia berriztagarriak erabiltzeko teknologietan soilik oinarritutako irtenbide teknikoak planteatu ahal izango dira, edo energia-efizientzia handiko teknologiak erabiltzeagatik aurrezteko neurriak soilik, edo, bestela, irtenbide tekniko mistoak ere proposatu ahal izango dira, aurreko biak konbinatuta. Gainera, hala badagokio, energia berriztagarrien erabileran oinarritutako teknologiak txertatuta etorkizunean berritzeko zailtasun teknikoak eragin ditzaketen arauzko alderdi teknikoak adierazi beharko dira.
- ☐ Planteatutako proposamen bakoitzerako, egoera berriaren energia-balantze teorikoa adierazi behar da: proposatutako energia berriztagarriak, aurreikusitako energia aurrezteko neurriak, energia-kontsumo berriak eta balantzean duten parte-hartzea, bai eta egoera energetiko berriak eragindako aurrezpen energetikoa eta ekonomikoa ere. Bideragarritasun teknikoaren arabera adierazi behar dira proposamenak.
- ☐ Planteatutako proposamen bakoitzerako, egoera berriaren arabera egin beharreko inbertsio teorikoa adierazi behar da: proposatutako energia berriztagarrien instalazioek eta aurreikusitako energia aurrezteko neurriek eskatutako inbertsioak. Bideragarritasun tekniko-ekonomikoaren arabera adierazi behar dira proposamenak.

Ezingo dira laguntza-programa honetan sartu **1.000 eurotik beherako kostua** duten jarduerak (BEZik gabe).

B) Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

Oinarri honetan eta 651/2014 Erregelamenduaren 49. artikuluan aurreikusitakoaz gain, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikuluan, 20/2023 Legearen 30. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 83. artikuluan jasotakoa aplikatuko da.



Diruz lagundu daitezkeen jardueren barruan, jarduera horiek behar bezala egiteko beharrezkoak diren lanen kostuak izango dira diruz lagundu daitezkeen kostuak, besteak beste, informazioa biltzea, bisitak, neurketak eta kalkuluak egitea, bilerak eta dinamikak antolatzea eta dokumentuak idaztea. Gainera, kontuan hartuko da honako hau:

- ☐ Materialerako eta eskulanerako partida ekonomiko guztiak dirulaguntzaren xede den jarduera-motari zuzenean egotz dakizkiokeenak izango dira.
- ☐ Zerga-kenkariak edo bestelako kargak barnean hartuz adieraziko dira diruz lagundu daitezkeen kostuak.

Nolanahi ere, gehieneko muga bat ezarri zaio diruz lagun daitekeen kostuari, auditorian jasotako instalazioen energia-kontsumoaren arabera. Beraz, I. eranskin honetan aurreikusitako laguntzaren ehunekoa aplikatzeko diruz lagun daitekeen kostuak ez ditu, inolaz ere, gaindituko gehieneko zenbateko horiek:

Auditorian jasotako instalazioen energia-kontsumoa (ptb urtean)		Diruz lagundu daitekeen gehieneko kostua
300	< 500	9.800
150	< 300	7.700
50	< 150	6.600
30	<50	5.300
20	<30	4.400
10	<20	3.800
0	<10	3.300

Kostu hauek ez dira diruz lagunduko

- ☐ Jarduketaren ondoriozko finantza-gastuak.
- ☐ Langile propioen gastuak.
- ☐ Zerbitzariak, inprimagailuak, eta oro har, mota guztietako ekipamendu ofimatikoak.
- ☐ Ekipamendu eta instalazioak konpondu, egokitu eta mantentzeko inbertsioak.
- ☐ Eta, oro har, argi eta garbi zehaztuta ez dauden eta laguntza-programa honetan aurreikusitako helburuak lortzeko modu zuzenean identifikatu ezin daitezkeen kostu guztiak.

Azkenik, tributuoak diruz lagundu daitekeen kostutzat hartzeari dagokionez, 20/2023 Legearen 30.8 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

C) Laguntzen zenbatekoa.

Laguntza-programa honen I. eranskinean deskribatutako jarduerak diruz lagundu daitekeen kostuaren % **50eko laguntza** izango dute.



II. ERANSKINA

DOKUMENTAZIOA

Eranskin honetan zerrendatutako dokumentazioaren xedea da, laguntza-eskaeraren eraginpeko jarduketari dagokion laguntza-programan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira, testua pantailan horizontalean bistaratuta eta ahal bada trinkotu gabe.

A) Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa.

- a) Pertsona eskatzailearen IFZ/AIZ eta, hala badagokio, haren lege-ordezkarirena. NANaren kopia aurkeztea ez da beharrezkoa izango baldin eta interesdunak espresuki uko egiten ez badio EEEK haren nortasun pertsonaleko datuak kontsultatzeari. NANaren kopia aurkeztea ez da beharrezkoa izango baldin eta interesdunak espresuki uko egiten ez badio EEEK haren nortasun pertsonaleko datuak kontsultatzeari.

Bestetik, pertsona eskatzailearen IFZren/AIZren kasurako, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapenak Administrazio publikoei eskumena ematen die beren esku dauden datu pertsonalak egiaztatzeko, datu horien zehaztasuna egiaztatzearen.

- b) Eskaera lege-ordezkar baten bidez aurkezten bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du legez ezarritako baldintzetan eta ahalordetzeko eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko du. Eskaera sinatzen duenaren (lege-ordezkaria) NAN/ANZaren kopia ere aurkeztuko da.
- c) Eskaera pertsona delegatu baten bidez aurkezten bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du, eta ordezkaritza emateko dokumentua (www.eve.eus webgunean eskuragarri dagoena) aurkeztu beharko du, non laguntza-eskaera sinatzeko eta kudeatzeko baimena emango baitzaio. Eskaeraren sinatzailearen NANaren kopia aurkeztu beharko da (delegatua).
- d) Pertsona eskatzaileak edo haren lege-ordezkariek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota agertuko diren pertsona eskatzaileari dagokionez:
- ☐ Ez dagoela DLOaren 13.2, 13.3 eta 13.3 bis artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren batean.
 - ☐ Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.
 - ☐ Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez dagoela edo haiek itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko aginduaren 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, ez dela aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen baten bidez zigortua izan.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo-emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango dio organo-emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, atal honetan adierazitako terminoetan.



- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez eguneratuta dagoela, DEOaren 22. artikuluan ezartzen denez. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo-emaileak zuzenean lortu dezan DEOaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bitartez, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkionak salbu, laguntzaren eskatzaileak ekarri beharko dituen ziurtagiriak.

Nolanahi ere, pertsona eskatzaileak espresuki ukatu ahalko dio organo-emaileari baimen hori emateko aukera, eta kasu horretan, aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeko.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

- Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo-emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32.ean xedatutakoari dagokionez.

- Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, publikoak edo pribatuak izan, ez dagoela gainfintzatu eta laguntza-eskaeraren helburua edo jarduketa ez gainfintzatzeko konpromisoa hartzen du (hau da, ez duela gaindituko diruz lagundutako jarduketaren kostua).
 - Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta Transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean ez dela erori.
 - EBk hartutako erabaki baten ondorioz ez dagoela zigortua, ez dagoela krisialdian, krisialdian dauden enpresen salbamendu eta berregituraketako estatuko laguntzei buruzko Batasuneko Zuzentzauek ezarritakoaren arabera (Batzordearen 2014/C 249/1 Jakinarazpena, 2014ko uztailaren 31koa), aldez aurretik eman zaien edozein laguntza edo dirulaguntzaren gainean egiteko dagoen berreskuratze-agindu baten pean ez dagoela, laguntza legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateraezina deklaratu delako, edo emakidan esleitura zetozkion betebeharren edozein ez-betetzegatik.
 - Sozietatearen helburu edo jarduera guztia edo zati bat ez dela armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea (EAEko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea).
- e) Indarreko araudiaren arabera indarreko berdintasun-plan bat eduki behar duten enpresentzat, plan horren kopia bat. 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, emakumeen eta gizonen berdintasun-alorreko Estatuko Legerian ezarritakoaren arabera sexu-jazarpenera edo sexu-arrazoiengatik jazarpenera prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurrien ezarpena egiaztatzen duen dokumentua.



- f) Enpresa txiki eta ertaina dela egiaztatzen duen dokumentazioa, 56/2006 Errege Dekretuan horretarako ezarritako betekizunen arabera:
- ☐ Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa biltzen duena.
 - ☐ Negozioen urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria.
- g) 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskinean jasotako definizioaren arabera, enpresa txikia edo enpresa ertaina dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena. Horrez gain, enpresa txiki edo ertainak badira 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskineko 2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hori hala dela egiaztatu beharko dute honako dokumentazio hau aurkeztuz:
- ☐ Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa biltzen duena.
 - ☐ Negozioen urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria.
- h) Eskatzailearen jarduera ekonomikoari dagokion 2025eko EJSN kodea edo, halakorik ezean, 2009ko EJSNa jasotzen duen agiri ofiziala.
- Orientabide gisa, adierazi GSDOren «Kotizazio-kontuaren kodearen egoera-txostenean» agertzen direla onuradunaren identifikazio fiskaleko txartela, errolda-aitorpena, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraketa-eskritura, besteak beste.
- i) Autonomoen kasuan, langile autonomoek erregimen berezian kotizatzekeo Gizarte Segurantzaren dokumentu ofiziala.
- j) Pertsona eskatzailea titularra den kontuaren IBAN kodea egiaztatzekeo banku-ziurtagiria. Kontu-zenbaki horretan ordainduko da azkenean ebatzitako dirulaguntza, laguntza-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak betetakoan eta eskatzailea pertsona onuradun bihurtutakoan.
- k) Kokapenaren deskribapen tekniko-energetikoa (urteko funtzionamendu-orduak, langile-kopurua, txandak, kontsumoak eta energia-kostuak, etab.), bai eta energia kontsumitzen duten instalazio nagusien deskribapena ere, auditoriaren irismena adierazita (egin beharreko monitorizazioak, garatu beharreko energia-balantzeak eta horien konplexutasuna, energia berriztagarrien bideragarritasun-azterketa, etab.).
- l) Jarduera egingo duen enpresaren edo enpresen aurrekontua. Oinarri hauek EHAAr argitaratu ondoren egin beharko da aurrekontu hori, eta behar bezala banakatua egongo da, diruz lagundu daitekeen jardueraren partida ekonomiko garrantzitsuak bereizi ahal izateko.
- m) Hainbat hornitzaileari eskatutako eskaintza edo eskaintza multzoa, DLOren 31.3 artikuluan eta Programaren 6.4.b) oinarrian ezarritakoaren arabera, eta horien artean onartutako proposamena.
- DLOren 31.3 artikuluan eta 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Kontratazio Publikoaren arloko Araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak (15.000 euros edo gehiago zerbitzu eta horniduretarako, BEZik gabe) gainditzen dituenean, laguntzaren eskatzaileak, laguntza-eskaerarekin batera, gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu eta aurkeztu beharko ditu, zerbitzua emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, dituen ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez badago halako zerbitzuak egin, eman edo hornitzen dituen behar beste erakunde.
- Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espresuki justifikatuta geratzea ere, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.



B) Egindako jarduketa gauzatu, fakturatu eta ordaindu dela justifikatzeko eskatutako dokumentazioa.

a) Pertsona eskatzaileak edo haren lege-ordezkariek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota agertuko diren pertsona eskatzaileari dagokionez:

- ☐ Ez dagoela DLOaren 13.2, 13.3 eta 13.3 bis artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren batean.
- ☐ Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.
- ☐ Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez dagoela edo haiek itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko aginduaren 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, ez dela aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen baten bidez zigortua izan.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo-emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango dio organo-emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, atal honetan adierazitako terminoetan.

- ☐ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzei dagokionez eguneratuta dagoela, DEOaren 22. artikuluan ezartzen denez. Ordainketa-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo-emaileak zuzenean lortu dezan DEOaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bitartez, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkionak salbu, laguntzaren eskatzaileak ekarri beharko dituen ziurtagiriak.

Nolanahi ere, pertsona eskatzaileak espresuki ukatu ahalko dio organo-emaileari baimen hori emateko aukera, eta kasu horretan, aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeko.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzei buruzko Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzei buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

- ☐ Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo-emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32. artikuluan xedatutakoari dagokionez.

- ☐ Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, publikoak edo pribatuak izan, ez dagoela gainfinantzatua eta laguntza-eskaeraren helburua edo jarduketa ez gainfinantzatzeko konpromisoa hartzen du (hau da, ez duela gaindituko diruz lagundutako jarduketaren kostua).



- ☐ Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta Transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean ez dela erori.
- ☐ EBk hartutako erabaki baten ondorioz ez dagoela zigortua, ez dagoela krisialdian, krisialdian dauden enpresen salbamendu eta berregituraketako estatuko laguntzei buruzko Batasuneko Zuzentzauek ezarritakoaren arabera (Batzordearen 2014/C 249/1 Jakinarazpena, 2014ko uztailaren 31koa), aldeztu aurretik eman zaien edozein laguntza edo dirulaguntzaren gainean egiteko dagoen berreskuratze-agindu baten pean ez dagoela, laguntza legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateraezina deklaratu delako, edo emakidan esleitura zetozkion betebeharren edozein ez-betetzegatik.
- ☐ Sozietatearen helburu edo jarduera guztia edo zati bat ez dela armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea (EAEko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea).
- ☐ Honako hauek bermatzeko konpromisoa hartzen du:
 - ☐ Estatuko eta Europar Batasuneko arauak betetzea, honelako jarduketei aplikatzekoak diren aukera-berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko betekizunei dagokienez.
 - ☐ Estatuan eta Europar Batasunean ingurumenaren eta garapen jasangarriaren alorrean indarrean dauden arauak betetzea, eta
 - ☐ Iruzuraren aurkako neurri eraginkor eta neurritzkoak aplikatzea laguntzaren xede den proiektuaren kudeaketa-eremuan, pertsona fisikoentzat izan ezik.
- b) Pertsona onuradunaren eta enpresa kontratistaren artean idatziz formalizatutako kontratua/k, partida ekonomikoak xehatuta eta banakatuta aurkeztu beharko direlarik. Erantsitako partida ekonomikoak dauzkan kontraturik ez da onartuko, baldin eta partida horiek galarazten badute azterlanaren garrantzizko partida ekonomikoak bereiztea. Kontratu gisa aurrekontuaren onarpena aurkezten bada, laguntza-eskaera erregistratu ondorengoa izan beharko du onarpen-datak.
- c) Egindako energia-auditoria integralak justifikatzen dituzten fakturak (kopia kautoak). Faktura horiek onuradunari egin behar zaizkio, **2.1 oinarrian** adierazi den bezala, eta, behar bezala banakatuak, ekonomikoki partidaka baloratuak, eta **4. oinarrian** adierazitako epeen arabera datatuak izan behar dute.
- d) Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko aukera ematen dutenak: laguntzaren pertsona onuraduna, ordainketa jasotzen duen hirugarrena, ordainketa-data (balio-data) eta laguntzako jarduketa identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
- e) Laguntza eskatu den auditoriaren azken txostenaren kopia kautoa. Horren harira, **I. eranskinean** adierazitako baldintzetan errespetatu beharko da jardueraren irismena. Txosten horrek laburpenari eta ondorioei buruzko atal espezifiko bat izan beharko du, eta, harekin batera, laburpen bat aurkeztu beharko da, koadro gisakoa. Laburpen horretan jasoko dira aztertutako neurriak (bai energia berriztagarrien arloan, bai energia-efizientziaren arloan), beharrezko inbertsioak, eta urtean espero diren energia-aurrezpenak eta aurrezpen ekonomikoak, bai eta neurri bakoitzaren inbertsioaren itzulketa ere.